

2. ILDOA- GAZTERIA

2.ILDOAREN BERARIAZKO OINARRIAK. IRAKASKUNTZA ERTAINETAKO IKASTETXEETAKO GAZTE INFORMATZAILEEI LAGUNTZEA

Gazteria Zerbitzua





GAZTE INFORMATZAILEEN SAREA 2021-2022 PROGRAMAREN BARRUAN DIRU-HORNIDURAK ESLEITZEKO DEIALDIA ETA DEIALDIAREN OINARRIAK

Gazteria Zerbitzua

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2020eko abenduaren 30eko ALHAOn —148. zk.— argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —www.vitoria-gasteiz.org—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Aurreikusitako dirulaguntzen ildoetako bat hau da, Gazte Informatzaileen Sarea 2021-2022 programako diru-hornidurena.

Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute honako hauen ingurukoak jakiteko: instrukzioa eta ebazpena; ebazteko eta jakinarazteko epea; berriro formulatzea; uko egitea; dirulaguntzaren ordainketa; onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea; arau-haustea eta zigorrak; interpretazioa eta aplikatzekoa den araudia, eta abar.

1 DIRULAGUNTZAREN ILDOA

Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetako gazte informatzaileei laguntzea.

2 DEIALDAREN XEDEA

Gasteizko ikastetxeetan —Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa eta Erdi Mailako nahiz Goi Mailako Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeetan—, 2021-2022 ikasturtean, gazte informatzaileen sarea kudeatu eta dinamizatzeko diru-hornidurak emateko modua arautzen da deialdi honen bitartez.

Gazteei beren garapen pertsonalerako informazio esanguratsua eskuratzeko erraztasunak ematea da deialdi honen helburua, eta, funtsean, informazio hori bildu eta gazteen artean zabaltzeko orduan berak protagonista izatea.

Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuak gazteen arloan jarduteko ardatz nagusiak ezarri ditu —berrikuntza, protagonismoa, partaidetza eta zeharkakotasuna—. Gazte informatzaileen sarearen programa honek gazteen protagonismoa eta partaidetza ahalbidetzen ditu hartzaile diren politiketan.

3 PROIEKTUAREN AZALPENA

Gazte informatzaileen sarea zer den: programa horren bitartez, koordinatu egiten da ikasleen parte-hartzea, beren eguneroko eta etorkizuneko jardunerako informazio garrantzitsua jaso eta zabaltzeari dagokionez: hirian gazteentzat dauden zerbitzu eta baliabideak, prestakuntza, beka eta dirulaguntzak, lehiaketa eta deialdiak, enplegua, aisialdia eta abar. Horretarako, informazio-lekuez hornitzen ditu Gazteria Zerbitzuak parte hartzen duten ikastetxeak. Informazio-leku bakoitzak honako hauek ditu:

- 1.- Informazio-taula bat.
- 2.- Harremanetarako, informaziorako eta komunikaziorako espazio birtual bat.
- 3.- Gazte informatzaileak, ikastetxeko ikasleak.



1.- **Informazio-taula** proiektu honetarako eta ez bestetarako izango da, eta gazteentzat interesgarri izan litezkeen berri eta argibideak jarriko dira bertan. Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoko informazio hautatu eguneratua eta gazte informatzaileek bere ikastetxean nahiz auzoan jasotzen duten informazioa eskainiko dute informazio-taulek.

2.- **Espazio birtuala:** programaren eta parte hartzen duten gazteen beharretara egokitzen diren harreman-, informazio- eta komunikazio-espazioak sortuko dituzte gazte informatzaileek sare sozialen bitartez —Twitter edota Instagram—, eta Gazteria Zerbitzuaren sare sozialetako edukiak eskura edukiko —Twitter: @VG_gaztea eta Facebook: OMIJ - Informazio Gaztea—.

3.- Informazio-lekua dagoen ikastetxeko 15 eta 25 urte bitarteko ikasleak izango dira **gazte informatzaileak**. Ikastetxe bakoitzean bi lagun izan daiteke zeregin horietan jarduteko kopururik egokiena.

Ikastetxeak berak aukeratuko ditu, egokituz jotzen dituen hautaketa-irizpideak baliatuz. Beren ikastetxean programa dinamizatzeko proposamen bat egiteaz arduratuko dira gazte informatzaile horiek.

Oinarri hauen hamargarren puntuan adierazten den baremoa baliatuz baloratuko ditu Gazteria Zerbitzuak egiten diren proposamenak, eta ikastetxeak eta parte-hartzaileak aukeratuko. Gazte informatzaileek ez dute inolako lan- edo merkataritza-harremanik izango Udalarekin; besterik gabe, diru-hornidura baten onuradun izango dira.

- 2021eko urritik 2022ko maiatzera artekoa izango da **funtzionamendu-aldia**.

- **Diru-hornidurak:** deialdi honen bitartez, gehienez 20 diru-hornidura esleituko dira gazte informatzaileen sarea dinamizatzeko. Ikastetxe bakoitzeko, 500 eurokoa izango da diru-hornidura, bertako ikasleek informazio-lekua dinamizatzeko egiten dituzten lanen ordainetan. Proiektuei bermea ematen dieten ikastetxeen zeregina izango da —deialdi honen barruan hautatuak suertatzen direlarik— diru-hornidura kudeatzea, esan nahi baita hura jaso eta gazte informatzaileei helaraztea.

Hain zuzen ere, ikastetxearen banku-kontuan sartuko da diru-hornidura hori, bi epetan. Ikastetxea arduratuko da ikasleei ordaintzeaz, diru-horniduraren jasotzailea den aldetik.

Ordainketa bakoitza justifikatzeko, ziurtagiriak bidali beharko ditu ikastetxeak Gazteria Zerbitzura (IV. eranskina).

4 BALIABIDE EKONOMIKOAK

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Gazteria Zerbitzuaren 2021eko aurrekontuko 2021/0116.2371.48936 partidako 10.000 euroko aurrekontu-kreditutik ordainduko dira.

5 IKASTETXEAREN ZEREGINAK, GAZTE INFORMATZAILEEN SAREA DELA ETA

Hauxe eskatzen zaio informazio-leku bat eduki nahi duen ikastetxeari:

- a. Gazte informatzaileen sarearen programari zabalkundea ematea ikasleen artean, sarearen zereginak beren gain hartuko dituzten ikasleak hautatzea, eta haien dinamizatzeko proposamenari bermea ematea (III. eranskina). Gainera, erreferentziazko pertsona bat aukeratu beharko dute ikastetxean —bai gazte informatzaileentzat, bai Gazteria Zerbitzuarentzat.
- b. Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesuan Gazteria Zerbitzuari laguntzea.
- c. Ongi ikusteko moduko leku bat uztea, ikastetxean, informazio-taula jartzeko, gazte informatzaileek eta ez bestek erabiltzeko.
- d. Programaren zabalkundea erraztea, bai modu presentzialean, ikastetxean, bai ikastetxearen sare sozialen, webgunearen edo argitalpenen bitartez.
- e. Informazio-lekua kudeatzeko lanak errazte aldera, ikastetxeko zenbait baliabide erabiltzen uztea: bulego-materiala, fotokopiagailua, ordenagailua, telefona...



- f. Horretarako jasotako diru-hornidura ikastetxeko gazte-informatzaileei helaraztea, eta ordainketa horiek behar bezala justifikatzea (IV. eranskina). Ikastetxeak ezingo du inolaz ere atxiki diru-hornidura Gazte informatzaileen sarearen programaz kanpoko kontzeptuak direla eta.
- g. Proiektuaren jarraitutasuna bermatzea, ezarritako aldi osoan, behar izanez gero gazte informatzaile berriak izendatuz, baldin eta lehendik zeudenek ikastetxea uzten badute edo hurrengo puntuan adierazten diren zereginak betetzen ez badituzte, edo bestelako pisuzko arazoiren bat egokitzen bada.

6 GAZTE INFORMATZAILEEN ZEREGINAK

Deialdi honetan beren proposamena hautatua egokitzen delarik, zeregin hauek hartu beharko dituzte beren gain gazte informatzaileek:

- a. Hamabostean behin Gazteen Argibideetarako Bulegora joatea, bertan prestatutako informazioa jasotzera, eta ikastetxeko ikaskideentzat interesgarritzat jotzen duten beste edozein informazio bildu eta prestatzea.
- b. Informazio-lekuko informazio-taula kudeatzea —eguneratua eta ordenatua eduki beharko dute, eta Gazteen Argibideetarako Bulegoan eskuratutako informazioa nahiz berek lortzen dutena bertan jarri, bulego horretatik ematen dizkieten irizpide teknikoan arabera antolatuta.
- c. Proiektuari eta informatzaile gazte gisa duten eginkizunari zabalkundea ematea ikastetxeko ikasgeletan —panela, sare sozialetako profila, arreta presentziala...).
- d. Hilean bi orduz, ikaskideei zuzeneko informazioa ematea. Proiektuaren arduradunaren eta informatzaile gazteen artean zehaztu ahal izango da noiz eskaini arreta hori, ikastetxe bakoitzean. Denbora horretan, informazio-panela dagoen tokian egon beharko dute, ikastetxeko ikaskideen kezken berri jaso, leudekeen zalantzak argitu eta lehen eskuko informazioa emateko.
- e. Gazte informatzaileen sarearen programarako lehendik sortutako nahiz berrietik sortzen diren sare sozialak kudeatzen eta horiei zabalkundea ematen modu aktiboan parte hartzea, informazio-edukiak sortuz eta horiek beren ikastetxeetako gazteen artean zabalduz.
- f. Gazteria Zerbitzuak deitzen dituen koordinazio-, jarraipen- eta prestakuntza-bileretara joatea:
Nahitaez joan beharreko prestakuntza-bilerak:
 - Prestakuntza-bilera teorikoa: urriaren 16an, larunbatez (2-3 orduko saioa, goizez).
 - Sare sozialen inguruko prestakuntza-bilera praktikoa: urriaren 23an, larunbatez (2-3 orduko saioa, goizez).
 - Jarraipen-bilera, ikastetxean bertan, urtarrilean edo otsailean (30 minutu, gutxi gorabehera).
 - Ebaluazio-topaketak, 2022ko maiatzean (elkarrizketa pertsonalak).
 - Informatzaile gazteek eskatzen dituzten prestakuntza puntualak.
- g. Proiektuaren jarraipen- eta ebaluazio-datuak biltzeko Gazteen Argibideetarako Bulegoarekin elkarlanean jardun eta ikasturtean zehar informatzaile gisa egindako lanari buruzko azken galdetegi bat betetzea. Alderdi hauek baloratuko dira galdetegi horretan: Alde batetik, gazte informatzaileen eta erabiltzaileen asebetetze-maila; bestetik, sare sozialetan egindako lana —jarraitzaile-kopurua, partekatuta eta igotako berrien kopurua eta



abar—, eta, azkenik, informatzaile gisa egiten duten lana ezagutzera emateko erabilitako estrategiak. Ezinbesteko betekizuna izango da diru-horniduraren bigarren epea kobratzeko.

- h.** Funtzionamendu ezegokirik ikusiz gero, Gazteen Argibideetarako Bulegoak kontrol- eta ebaluazio-sistemak ezarri ahal izango ditu, beti ere dinamika behar bezala bideratu eta programako helburuak betetzera zuzendurik.

7 GAZTERIA ZERBITZUAREN ZEREGINAK

Konpromiso hauek hartuko ditu bere gain Gazteria Zerbitzuak:

- a.** Proiektuaren arduradun bat izendatzea, ikastetxe eta informatzaileekiko harremanetarako.
- b.** Ikastetxe bakoitza informazio-taula batez hornitzea.
- c.** Gazte informatzaile bakoitzari informazio-lekuko taula eguneratzeko behar duen informazio-materiala eta dokumentazioa ematea, eta halaber ikastetxean nahiz espazio birtualean informazioa bilatu eta zabalkundea emateko prestakuntza.
- d.** Gazte informatzaileei informazio-lekuak kudeatzeko aholkuak eta laguntza ematea, eta banakako jarraipena egitea.
- e.** Prestakuntza jasotzea eta behar diren bilerak egitea, eta, kasuan kasu, informazio-panelen eta espazio birtualen funtzionamendu onerako egokien diren kontrol- eta ebaluazio-sistemak ezartzea.
- f.** Proiektuari buruzko datuak bildu eta ebaluatzeko tresnak eskaintzea.
- g.** Ikastetxeei esleitutako diru-hornidurak ordaintzea, deialdi honetan adierzten diren epeetan eta moduan.
- h.** Programa hau dela eta gazte informatzaileek sorteen dituzten proposamen, ekintza eta berriei laguntza ematea. los espacios virtuales.

8 PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

1.- Gazte informatzaileen sarean parte hartu nahi duten Gasteizko udalerriko ikastetxeek — Bigarren Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa—, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a.** Bosgarren atalean adierazitako konpromisoak beren gain hartzeko prest agertzea.
- b.** Gasteizko Udalarri laguntza ekonomikoa eskatzea.
- c.** Ikastetxe bezala parte hartzeko eskabidea aurkeztea (I. eranskina), hautagai diren ikasleen eskabideekin batera (II. eranskina), eta gazte informatzaileen sarearen barruan ikastetxea dinamizatze horien proposamena (III. eranskina), baita gazte informatzaileen sarearen programaren barruan parte hartzeko eta sare sozialak, Whatsapp eta beren irudia egokiro erabiltzeko konpromisoa (V. eranskina), deialdi honen bederatzigarren puntuan adierazten diren epeetan eta moduan.

2.- Deialdi honetan parte hartu nahi duten **ikasleek baldintza hauek bete beharko dituzte:**

- a.** Proiektua zein ikastetxetarako den, bertan matrikulatuta egotea. Baldin eta ikasturtean zehar praktikarik egin behar bada ikastetxetik kanpo, ikasleak egiteko konpromisoa hartua duen zereginak egingo dituela bermatu beharko da. Ikasturteko edozein unetan



ikastetxean baja emanez gero, gazte informatzaile izateari utziko utziko dio dena delako ikasleak, eta orobat galduko du artean jaso gabeko diru-hornidura.

- b.** 15 urtetik 25era bitarteko adina edukitzea. Ikasturtean zehar bete beharko da baldintza hori. Gainera, DBHko 4. maila, Batxilergoa edo Lanbide Heziketako zikloren bate egiten aritu beharko da
- c.** Eskabidea aurkeztea (II. eranskina), beren ikastetxean, eta eskatzen diren egiaztagiriak eranstea (halakorik izanez gero).
- d.** Gazte informatzaileen sarearen barruan ikastetxea dinamizatzeko proposamena egitea. III. eranskineko gidoia —galdetegia— baliatu ahal izango da horretarako.
- e.** Parte hartzeko eta sare sozialak, whatsapp eta ikastetxearen irudia gazte informatzaileen sarearen programaren barruan egokiro erabiltzeko baimena aurkeztea (V. eranskina), sinatuta.
- f.** Gehienez ere bi ikasturtez parte hartu ahal izango du ikasle bakoitzak programan, matrikulatuta dagoen ikastetxea edozein delarik ere.
- g.** Seigarren atalean zehaztu diren informatzaile-zereginak beren gain hartzea.

Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoak aholkularitza eskainiko die programaren inguruko edozein zalantza argitu nahi duten ikasleei, eta eskatzen diren eranskinak betetzen lagunduko, bai telefonoz (945161330) telefonoan bai posta elektronikoz (infojovent2 @vitoria-gasteiz.org).

9 . IRAGARKIA ETA AURKEZTEKO EPEA

1.- Informazioa eta dokumentazioa

ALHAOn eta Udalaren webgunean —www.vitoria-gasteiz.org/omij— argitaratuko da deialdia, eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan —Espainia plaza— eskatu ahal izango da oinarrien kopia.

2.- Tramitazioa

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Proposamenak aurkezteko epea: 2021eko irailaren 24ko 23:59ak arte.

Oinarri hauetan ageri den eredia erabili beharko da eskabidea egiteko: www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak.

Eskabide bakoitzarekin batera aurkeztu beharko dira oinarri hauetan eskatzen diren agiriak.

- I. eranskina: Ikasleek “gazte informatzaileen sarea” programan parte hartzeko eskabidea
- II. eranskina: Ikasleen eskabidea, Gazte informatzaileen sarean informatzaile izateko.
- III. Eranskina: Informatzaileen proposamena
- IV. Eranskina. “Gazte informatzaileen sarea” programan parte hartzeko eta sare sozialak, whatsapp eta irudia behar bezala erabiltzeko baimena.



Dirulaguntza-eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio entitate eskatzaileari, eta orobat ohartaraziko hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela besterik gabe.

10. BALIOSPEN-IRIZPIDEAK

Gazte informatzaileen sarearen barruan ikastetxea dinamizatzeko proposamena idatzi beharko dute gazte informatzaileek. III. eranskineko gidoia —galdeategia— baliatu ahal izango da horretarako. Gazteria Zerbitzuko teknikariek hautatuko dituzte proposamenak, irizpide hauek aintzat harturik:

Proiektuaren eragin sozialaren balioespena	
Ikastetxeko ikasleen profil sozioekonomiko eta kulturalaren arabera, eta proiektu honen bidez partekatzen den informazioa beste bide batzuetatik eskuratzeko dituzten aukera eta baliabideen arabera.	10 puntu gehienez
Proposamenaren balioespena	
Egiazko informazioa, egiaztatua eta erabilgarria edukitzearen garrantziaren inguruko gogoeta.	10 puntu gehienez
Proposatutako metodologia: zereginen banaketa, gainerako ikasleekin lan egiteko moduak, ikastetxeko tutorearekiko eta zuzendaritzarekiko koordinazioa.	10 puntu gehienez
Informazio-panela, programaren sare-sozialetako profilak, eta beren gisakoentzat interesgarri diren edukiak ezagutzera emateko estrategiak: informazio-bilerak, bisitak klaseetara, komunikazioa transmititzeko euskarriak, webgunea, sare sozialak eta abar.	10 puntu gehienez
Informatzaileen merezimenduak	
Gazte elkarte edo talde bateko kide izatea (egiaztatu egin beharko da)	2 puntu gehienez
Aisialdiarekin, animazioarekin eta gazteentzako informazioarekin zerikusia duten ikastaroak egin izana (egiaztatu egin beharko da).	2 puntu gehienez
Ordezkapen-organoetako kide izatea (eskola-kontseilua, lan-batzordeak...) (egiaztatu egin beharko da).	2 puntu gehienez
GUZTIRA	46 puntu.

Aurkezten dituen eskabideak baino diru-hornidura gehiago badago, bat baino gehiago eman ahal izango da ikastetxe bererako. Horregatik, beren instalazioetan informazio-leku bat baino gehiago jarri nahi luketen ikastetxeek:

- Eskabide bana aurkeztu beharko dute, eta berariazko dinamizazio-proposamen bana.
- Proiektu bakoitzak bere gazte informatzaileak eta arduraduna eduki beharko ditu.
- Diru-hornidura baino eskabide gehiago badago, arestian adierazitako irizpideen arabera aukeratuko dira 20 ikastetxeak. Gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten eskabideak itxarotzerrendan sartuko dira, aurrekontu-zuzkidurarik bada edo ikastetxeren batek uko eginez gero baliatzeko.



Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuko teknikariak izango dira instrukzio-egile.

11- ESLEIPENAREN BERRI EMATEA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Diru-horniduraren adjudikazioaren jakinarazpena idatziz helaraziko zaio ikastetxeari, 10 eguneko epean, Gobernu Batzarrak onesten duenetik.

Adjudikaziodun suertatzen diren ikastetxeen kontu korronteetan ordainduko dira diru-hornidurak, bi epetan. Lehen zatia, 2021eko abendutik aurrera, eta bigarrena, berriz, 2022ko maiatzetik aurrera. Diru-hornidurak jasotzekotan, ikastetxeek ordainduta eduki beharko dituzte Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak —ofizioz egiaztatuko du hori Gazteria Zerbitzuak, baldin eta Gasteizko Udalarik laguntza ekonomikoa eskatzeko eskabidean horretarako baimena eman bada—. Baimenik ematen ez bada, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren ikastetxeak beteta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira 2021eko urrian.

Aipatutako formularioa aipatuko den data baino lehen bete beharko dute informatzaileek. Gazteria Zerbitzuak eta ikastetxeak hori ontzat eman ondoren, diru-horniduraren bigarren zatia ordainduko zaie informatzaile gazteei.

Informatzaile gazteek beren zereginak modu egokian bete ez badituzte, bertan behera utziko da diru-horniduraren ordainketa, ikastetxeari eta interesdunei behar bezala jakinarazi ondoren. Ordainketa egina balego, ikastetxeak diru hornidura itzuliko lioke Udalarik.

12- DIRU-HORNIDURA JUSTIFIKATZEA

Deialdi honen baitan gazte informatzaileen sarea dinamizatzeko diru-hornidura baten onuradun den ikastetxeak diru-hornidura hori informatzaileei helarazi izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu (IV. eranskina): 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen, lehen ordainketari dagokionez, eta 2022ko uztailaren 31 baino lehen, bigarren ordainketari dagokionez.